

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5070

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 10ekoa, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko 2014-2015 ikasturteari dagozkion proba libretearako deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probak arautzen dituen 2008ko ekainaren 19ko Aginduaren 4. artikulua xedatzen duenez, proba horietarako deialdia Lanbide Heziketako zuzendariaren ebazpen bidez egingo da, eta ebazpen horretan, izena emateko aldia eta proben datak zehaztuko dira. Era berean, 2. artikulua ezartzen du proba horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxeetan egingo direla, baimenduta dituzten heziketa-zikloetan, eta betiere, araubide arruntean matrikulatutako ikasleak badituzte lehen nahiz bigarren ikasturtean.

Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako 2010eko otsailaren 19ko Aginduaren hirugarren xedapen iragankorrek esaten duenez (agindu horrek lanbide-heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen du), hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSE) ondoriozko heziketa-zikloak hasi baina amaitu ez dituzten pertsonak titulua eskuratu ahal izan dezaten, teknikariari eta goi-mailako teknikariari dagozkion tituluak lortzeko probak deitzen jarraituko da. Alabaina, aurreko lege hori ordezkatzeko duen Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren heziketa-zikloa ezartzen den ikasturtean eta hurrengo ikasturtean soilik jarraituko dira deitzen proba horiek. Era berean, aldi horretan heziketa-ziklo horiek eskaintzen jarraitu ahal izango da eskaintza partzialaren modalitatean.

Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretua (gerora uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuak indargabetua) eta Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua aplikatzen direnetik, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikotik eratorritako lanbide-heziketako heziketa-zikloak ezarri izan dira. Arau horietan, eta arau horiek garatzen dituztenetan, mugatu egiten da aurrez aurreko erregimenean egiteko deialdien kopurua ikasleentzat. Ondorioz, ikasle batzuek, heziketa-zikloak aurrez aurreko erregimenean egin dituzten arren, ezin dituzte ikasketak jarraitu, ezarritako gehienezko deialdi-kopurua gainditua dutelako.

Aipatutako 1147/2011 Errege Dekretuko 36. artikuluan adierazten denez, hezkuntza-administrazioek, aldian-aldian, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 69.4 artikuluan ezarritako probak antolatu behar dituzte, teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko, eta, era berean, bertan ezartzen denez, gutxienez urtean behin egingo dira deialdiak. Halaber, adierazten du hezkuntza-administrazioek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, zehaztu egin behar dutela beren deialdietan heziketa-zikloetako zein lanbide-ziklotarako egiten diren probak, zein den matrikula egiteko epea eta zeintzuk diren probak egiteko egunak.

Kontuan izan behar da pertsona guztiek bizitza osoan zehar trebatzeko aukerak izan behar dituztela, eta, era berean, hezkuntza-sistemak bideak jarri behar dituela administrazio publikoak gai izan daitezen honako helburu hau lortzeko: herritar guztiek derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko trebakuntza edo parekoa lortzea. Horrela, bada, bidezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probak egiteko deialdia

egitea, goian deskribatutako egoerak kontuan hartuta, lanbide-heziketako ikasketak egin dituzten ikasleek aukera izan dezaten titulu bat lortzeko edo titulu hori lortzeko ikasketak egiten jarraitzeko.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2008ko ekainaren 19ko Aginduaren bidez arautuak) 2014-2015 ikasturteari dagozkion probetarako deialdia egitea.

2. artikulua.– Deialdiaren esparrua.

1.– Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babespean (LOGSE) ezarritako lanbide-heziketako tituluak lortzeko probak.

a) Aipatutako 1/1990 Lege Organikotik eratorritako lanbide-heziketako heziketa-zikloetan (eskainitako edozein modalitatetan) aldeztu aurretik matrikulatuta egon diren ikasleentzat dira proba hauek, edo, bestela, aldeztu aurretik titulua lortzeko probetara aurkeztu direnentzat. Heziketa-ziklo horiek, gaur egun, aurrez aurre ematen egon ahal izango dira, edo iraungita egon, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) babespean ezarritako lanbide-heziketako titulu berrien ezarpena indarrean sartu delako.

b) Aurreko idatz-zatian adierazitako modalitateetako edozeinetan aldeztu aurretik matrikulatuta egon diren ziklotako batean matrikulatu ahal izango dira ikasle horiek.

c) I. eta II. eranskinetan azaltzen da zein heziketa-ziklotarako egiten den deialdia.

I. eranskinean azaltzen da zein LOGSE heziketa-ziklotarako oraindik ere egiten den aurrez aurreko eskaintza, eta zeintzuetarako egiten den proba hauen deialdia.

II. eranskinean azaltzen da iraungitako edo iraungitzeko bidean dauden LOGSE heziketa-zikloetatik zeintzuetarako egiten den proba hauen deialdia, 2010eko otsailaren 19ko Aginduaren hirugarren xedapen iragankorrean adierazitakoarekin bat etorritik.

2.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babespean (LOE) ezarritako lanbide-heziketako tituluak lortzeko probak.

a) Aipatutako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik (LOE) eratorritako lanbide-heziketako heziketa-zikloetan aldeztu aurretik matrikulatuta egon eta aurrez aurreko erregimeneko deialdi-kopurua agortu duten ikasleentzat dira proba hauek.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan aurrez aurreko eskaintzan gaur egun ezarrita dauden heziketa-ziklo guztietarako egiten da deialdia.

3. artikulua.– Eskakizunak.

1.– Matrikulatu ahal izateko, ebazpen honetan aipatzen diren ikasleek bete egin beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2008ko ekainaren 19ko Aginduaren 3. artikuluan (uztailaren 14ko EHAA) ezarritako eskakizunak.

2.– Ikasle berak ezin izango du ikasturte berean matrikulatu teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probetan autonomia-erkidego batean baino gehiagotan. Baldintza hori ez betetzeak matrikula deuseztatzea ekarriko du berekin. Egoera hori egiaztatzeko, III. eranskinean jasotzen den aitorpena bete beharko du.

3.– Uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 36.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, 2014-2015 ikasturtean, ezin izango da aldi berean lanbide-modulu baten matrikula egin ebazpen honen bidez deitutako probetan eta lanbide-heziketako titulua lortzeko beste hezkuntza-administrazio batzuek deitzen dituztenetan, eta, era berean, ezin izango da modulu horretan matrikula egin aurrez aurreko edo urrutiko modalitateetako edozeinetan. Prozeduraren edozein fasetan, hori gertatu dela egiaztatuz gero, deialdi honetatik baztertuko da hori egin duena, eta baliorik gabe geratuko da egindako matrikula, hartara eragotzi gabe jokabide horrek ekar dezakeen beste edozein erantzukizun.

4. artikulua.– Matrikula egitea.

1.– Ebazpen honen bidez deitutako probetarako matrikula heziketa-zikloko modulu baterako edo gehiagorako egin ahal izango da, salbu eta proiektuko lanbide-modulurako, hala badagokio, eta Lantokiko Prestakuntza lanbide-modulurako; izan ere, aurrez aurreko modalitatean egin beharko dira horiek, heziketa-zikloko gainontzeko moduluak gainditu eta gero, eta haietarako ezarritako baldintzetan.

2.– Hezkuntza-administrazioaren menpeko lanbide-heziketako ikastetxeetako batean egingo da, heziketa-ziklo osoa ematen dutenetako batean.

3.– Iraungitzeko bidean diren heziketa-zikloen kasuan, 1/1990 Legetik (LOGSE) eratorritakoe-tan (II. eranskinean azaltzen dira), honako hauek ematen dituzten hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeetan egin ahal izango da matrikula:

- 1/1990 Lege Organikotik (LOGSE) eratorritako heziketa-ziklo iraungia ordeztan duen 2/2006 Lege Organikotik (LOE) eratorritako heziketa-zikloko bi kurtsoak.

- Edo bestela, matrikula egiten den zikloko bigarren kurtsoa eta 2/2006 Lege Organikotik (LOE) eratorritako lehenengo kurtsoa.

4.– Heziketa-zikloren batean ezin bada matrikula egin aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan edo behar bezala oinarritutako beste gorabehera batzuk baleude, Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxe batzuk berariaz gaitu ahal izango ditu horretarako.

5. artikulua.– Matrikulazio-aldia.

1.– Matrikula 2015eko martxoaren 9tik eta 20ra bitartean egin beharko da, bi egun horiek barne.

2.– Probak 2015eko ekainaren 1etik 19ra bitartean –bi egun horiek barne– egin ahal izango dira, ikastetxe bakoitzak ezartzen duen egutegira egokituz.

6. artikulua.– Tasak ordaintzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak aipatzen dituen modalitateen bitartez ordaindu ahal izango da azterketa egiteko eskubidea. Kreditu-erakunde kolaboratzaileek lagunduko dute horretan. 2015eko martxoaren 25a izango da azterketa-eskubi-deak ordaintzeko azken eguna.

2.– Matrikulak balioa izan dezan, azterketa egiteko eskubideei dagokien tasa ordaindu beharko da. 2015eko apirilaren 7an, ikastetxeko iragarki-taulan jarriko da ikusgai tasa ordaindu duten pertsonen zerrenda. Zerrenda horretan egon litezkeen akatsak zuzentzeko, epe bat irekiko da kaltetuek erreklamazioak jar ditzaten, eta epe hori apirilaren 13an amaituko da. maiatzaren 8an jarriko da ikusgai matrikulatu eta azterketa egiteko eskubidea ordaindu duten eta probetara aurkez daitezkeen pertsonen behin betiko zerrenda.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Probak egiteko ezarri den egutegia kontuan izanda ezin direnez aldi berean egin proba horiek eta Lantokiko Prestakuntza modulua, 2/2006 Lege Organikotik (LOE) eratorritako heziketa-zikloak ezarri ondoren aurreikusitako biak amaitu ondorengo ikasturtera arte modulu hori bakarrik egiteko matrikula egin ahal izango dute (2010eko otsailaren 19ko Aginduaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz) honako hauek: heziketa-zikloan sartzeko ezarri diren betekizun guztiak bete eta teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko proben deialdietan parte hartu dutenek eta 1/1990 Lege Organikotik (LOGSE) eratorritako heziketa-zikloetan (2/2006 Lege Organikotik eratorritako heziketa-zikloen ezarpenak eragiten dietenetan) parte hartu dutenek eta heziketa-zikloko curriculum osatzen duten lanbide-modulu guztiak, Lantokiko Prestakuntza modulua izan ezik, gainditu dituztenek.

Ikaslearen espedienteko azken idatzoharra jasota dagoen hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxean egingo da matrikulazioa; eta matrikula egiteko epea, berriz, heziketa-zikloak egiteko eskabideak aurkezteko eta onartzeko epeak eta ikasleak onartzeko jarraibideak ezartzen dituen urteko aginduan adierazten da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan prozedura-gaietarako arautzen ez denerako, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko da, ordezkoko modura (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 10a.

Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendaria,
RAMÓN MARÍA MARTÍNEZ DE MURGUÍA URRETA.

I. ERANSKINA

AURREZ AURREKO MODALITATEAN EMATEN DIREN LOGSE ZIKLOAK

LANBIDE-FAMILIA	LOGSE HEZIKETA-ZIKLOAK
Gorputz- eta kirol-ekintzak	Gorputz- eta kirol-ekintzen animazioa
	Landa-ingurunean gorputz- eta kirol-ekintzen gidaritza
Eraikuntza eta obra zibila	Obrak eta planak gauzatzea
Elektrizitatea eta elektronika	Kontsumorako ekipo elektronikoak
Irudia eta Soinua	Irudi-laboretegia
Instalazioak eta mantenimendua	Lanbide-arriskuen prebentzioa
Kimika	Ingurumen-kimika
Osasuna	Anatomia patologikoa eta zitologikoa
	Erizaintzako zaintza osagarriak
	Dietetika
	Osasun-dokumentazioa
	Aho- eta hotz higieena
	Diagnosi-irudia
	Diagnosi klinikoen laboretegia
Ingurumen-osasuna	
Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatekoak	Zeinu-mintzairaren interpretazioa

2014ko azaroaren 27a, osteguna

II. ERANSKINA

IRAUNGITAKO EDO IRAUNGITZEKO BIDEAN DAUDEN LOGSE ZIKLOAK

LOE ZIKLOAK –LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTE–, 2009/2010 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK

LANBIDE-FAMILIA	LOE HEZIKETA-ZIKLOAK	LOGSE ZIKLOAREN ORDEZ
Elektrizitatea eta Elektronika	<i>Instalazio Elektriko eta Automatikoak</i>	Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
Fabrikazio mekanikoa	<i>Mekanizazioa</i>	Mekanizazioa
	<i>Soldadura eta galdaragintza</i>	Soldadura eta galdaragintza
	Fabrikazio Mekanikoko Produktioaren Programatzea	Mekanizazio bidezko Produktzioa
	Metal-eraikuntzak	Metal-eraikuntzak
Ostalaritza eta turismoa	<i>Sukaldaritza eta Gastronomia</i>	Sukaldaritza
	<i>Jatetxe Arloko Zerbitzuak</i>	Jatetxe eta Tabernako Zerbitzuak
	Turismo Ostatuak Kudeatzea	Ostatuak
Informatika eta Komunikazioak	<i>Mikroinformatika Sistemak eta Sareak</i>	Informatika Sistemen Ustiapena
Instalatzeko eta mantentze-lanak	Instalazio Termiko eta Fluidoaren Proiektuen Garapena	Fluido, bero eta mantentze instalazioen proiektuen garapena
	Instalazio Termikoak eta Fluidodunak Mantentzea	Eraikin eta prozesu instalazioak muntatu eta mantentzea
Elikagaien industriak	<i>Okintza, Gozogintza eta Konfiteria</i>	Okintza eta gozogintza Pastelgintza eta okintza
Kimika	Analisisiko eta Kalitate-kontrolerako Laborategia	Analisisa eta kontrola
Osasuna	<i>Farmazia eta Parafarmazia</i>	Farmazia
Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatekoak	Haur Hezkuntza	Haur Hezkuntza
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	Patroigintza eta Moda	Patroigintza Jantzigintza industrialeko prozesuak
Garraioa eta ibilgailuen mantenimendua	<i>Karrozeria</i>	Karrozeria

LOE ZIKLOAK –LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTE–, 2010/2011 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK

LANBIDE-FAMILIA	LOE HEZIKETA-ZIKLOAK	LOGSE ZIKLOAREN ORDEZ
Fabrikazio mekanikoa	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Proiektu mekanikoen garapena
Ostalaritza eta turismoa	Bidaia Agentziak eta Ospakizunen Kudeaketa	Bidaia agentziak
	Turismo Gidaritza, Informazioa eta Laguntza	Turismo Merkaturatzea eta Informazioa
Informatika eta Komunikazioak	Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Informatika sistemen administrazioa
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	<i>Jantzigintza eta Moda</i>	Jantzigintza
Garraioa eta ibilgailuen Mantenimendua	Automozioa	Automozioa

LOE ZIKLOAK -LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTE-, 2011/2012 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK

LANBIDE-FAMILIA	LOE HEZIKETA-ZIKLOAK	LOGSE ZIKLOAREN ORDEZ
Administrazioa eta Kudeaketa	Administrazio-kudeaketa	Administrazio-kudeaketa
Nekazaritza	Nekazaritza eta Abeltzaintzako Produkzioa	Nekazaritza ustiategi estentsiboak Nekazaritza ustiategi intentsiboak Abeltzaintza ustiategiak
	Lorategizaintza eta lorezaintza	Lorezaintza
Eraikuntza eta obra zibila	Eraikuntza Proiektuak	Eraikuntza Proiektuen Garapena eta Aplikazioa
Elektrizitatea eta elektronika	Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak	Instalazio elektroteknikoak
Ostalaritza eta turismoa	Jatetxe-arloko zerbitzuetako zuzendaritza	Jatetxe-arloa
	Sukaldeko zuzendaritza	Jatetxe-arloa
Irudi pertsonala	Estetika eta Edergintza	Dekorazio Estetika Pertsonala
Informatika eta komunikazioak	Plataforma anitzeko aplikazioen garapena	Informatika-aplikazioen garapena
Instalazioak eta mantenimendua	Beroa sortzeko instalazioak	Hozteko, girotzeko eta berotzeko instalazioen muntaketa eta mantentze-lanak
	Hozteko eta girotzeko instalazioak	Hozteko, girotzeko eta berotzeko instalazioen muntaketa eta mantentze-lanak
Elikagaien industriak	Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea	Elikagaien industria
Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak	Arotzeria eta altzarigintza	Arotzeria eta altzarigintza industrialak
Garraioa eta ibilgailuen mantenimendua	Ibilgailu automobilen elektromekanika	Ibilgailuen elektromekanika

LOE ZIKLOAK -LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTE-, 2012/2013 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK

LANBIDE-FAMILIA	LOE HEZIKETA-ZIKLOAK	LOGSE ZIKLOAREN ORDEZ
Administrazioa eta Kudeaketa	Administrazioa eta Finantzak.	Administrazioa eta Finantzak.
	Zuzendaritzari laguntzea.	Idazkari Ikasketak
Nekazaritza	Basoa eta natura-ingurunea kudeatzea	Natura- eta paisaia-baliabideen kudeaketa eta antolamendua
Arte Grafikoak	Aurreinprimaketa Digitala	Arte grafikoetako aurreinprimaketa
	Inprimaketa Grafikoa	Arte grafikoetako inprimaketa
Merkataritza eta Marketina	Merkataritza-jarduerak	Merkataritza
	Nazioarteko Merkataritza	Nazioarteko Merkataritza
	Garraioa eta Logistika	Garraioaren kudeaketa
	Salmentak eta merkataritza-espazioak kudeatzea	Merkataritza-kudeaketa eta marketina
Elektrizitatea eta elektronika	Mantentze-lan elektronikoa	Produktu elektronikoen garapena
	Telekomunikazio- eta informatika-sistemak	Telekomunikazio- eta informatika-sistemak
	Automatizazioa eta Robotika Industrialak	Erregulazio- eta kontrol-sistema automatikoak.
Eraikuntza eta Obra Zibila.	Barnealdeetako, Dekorazioko eta Birgaitzeko Obrak	Eraikuntza akaberak
	Eraikuntza	Igeltsero-obrak / Hormigoizko obrak
	Obra Zibileko Proiektuak	Hirigintza-proiektuen eta topografia-lanen garapena

LANBIDE-FAMILIA	LOE HEZIKETA-ZIKLOAK	LOGSE ZIKLOAREN ORDEZ
Irudi pertsonala	Ile-apainketa eta -kosmetika.	Ile-apainketa
	Estetika Integrala eta Ongizatea	Estetika
	Irudi Pertsonalaren eta Korporatiboaren Aholkularitza	Irudi Pertsonaleko Aholkularitza
Irudia eta soinua	Ikus-entzunezkoen eta Ikuskizunen Produkzioa	Ikus-entzunezkoen, iratiaren eta ikuskizunen produkzioa
	Ikus-entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioa	Ikus-entzunezkoen eta Ikuskizunen Errealizazioa
	Ikus-entzunezkoetarako eta Ikuskizunetarako Soinua	Soinua
	Irudia Argizatzea, Hartzea eta Tratatzea	Irudia
Instalazioak eta mantenimendua	Mantentze-lan Elektromekanikoak	Makinen eta linea-eroanbideen instalazioa eta mantentze-lan elektromekanikoak
	Mekatronika Industriala	Ekipo industrialaren mantentzea
Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak	Instalazioa eta Altzari-hornikuntza	Arotz-lanak eta altzariak neurrira egin eta instalatzea
	Diseinua eta Altzari-hornikuntza	Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena
Itsasoa eta Arrantza	Itsas Garraioa eta Alturako Arrantza	Itsas nabigazioa, arrantza eta garraioa
	Akuikultura	Akuikultura-produkzioa
Osasuna	Hortz-protesiak	Hortz-protesiak
Gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta komunitatekoak	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea	Atentzio soziosanitarioa
	Animazio soziokulturala eta turistikoa	Animazio soziokulturala

LOE ZIKLOAK –LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTE–, 2013/2014 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK

LANBIDE-FAMILIA	LOE HEZIKETA-ZIKLOAK	LOGSE ZIKLOAREN ORDEZ
Nekazaritza	Natura-ingurunea ustiatzea eta kontserbatzea	Baso-lanak eta natura-ingurunearen zaintza
Irudi pertsonala		Karakterizazioa
Itsasoa eta Arrantza	Ontzi eta itsasontzien makineriaren zainketa eta kontrola	Itsasontziko makinen eta instalazioen operazioa eta kontrola
	Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza	Itsas arrantza eta garraioa
	Ontzi eta itsasontzietako makineriaren zainketa antolatzea	Itsasontziko makinak eta instalazioak erabiltzea eta kontrolatzea
Kimika	Laborategiko eragiketak	Laborategia
Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatekoak	Gizarteratzea	Gizarteratzea

LOE ZIKLOAK –LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTE–, 2014/2015 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK

LANBIDE-FAMILIA	LOE HEZIKETA-ZIKLOAK	LOGSE ZIKLOAREN ORDEZ
Osasuna	Ortoprotesiak eta laguntza- produktuak	Ortoprotesiak
Fabrikazio mekanikoa	Metalak eta polimeroak moldekatzeko produkzioa programatzea	Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
		Plastikoak eta Kautxua
Arte grafikoak	Argitalpen inprimatuaren eta multimedia-argitalpenen diseinua eta edizioa	Argitalpenen diseinua eta produkzioa
	Produkzio grafikoaren diseinua eta kudeaketa	Arte grafikoaren industrietako produkzioa

2014ko azaroaren 27a, osteguna

III. ERANSKINA

TEKNIKARIAREN ETA GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN TITULUAK LORTZEKO PROBAK
2014-2015 ikasturteko deialdia

..... jaunak/andreak,

..... NAN zk. duenak, teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probetan
Euskal Autonomia Erkidegoan matrikulatuta dagoenak,

ZIN EGIN EDO PROMES EGITEN DU

Ikasturte honetan ez duela aldi berean matrikula egingo titulu bera lortzeko beste hezkuntza-administrazio batek
deitutako probetan.

....., 20...koarena.

Iz.:

.....-KO ZUZENDARIA.
(ikastetxearen izena)